

OSTIRALA, 2026ko UZTAILAREN 24a

Santioak **2026**

PASAI DONIBANE

• OARSO BIDASOKO •

HITZA

Pasaiako festa luzeenak, eta azkenak

Gaur (ostirala) hasiko dira Donibaneko Santio Festak. Hilaren 31ko su-festara arte barruti arrosaren ikur diren jarduerak egingo dituzte • 23-26



Konstantzia banda Santiago plazan. Konstantzia

Konstantzia, 200 urtez Donibane girotzen

MIKEL DEL VAL GARCIA

U rtero bezala, santioak edukiz beteta iritsi dira Donibanera. Gaurtik (ostirala) hasita, sanjuandarrek jarduera mordoa topatuko dituzte Pasaiaiko azken jaiez gozatzeko. Herritarrek batera, bi mendez Donibanen fidel mantendu den talde batek girotuko ditu santioak aurten ere. Talde hori Konstantzia banda da.

Konstantzia duela 200 urte Donibanen sortutako banda bat dela adierazi

du Karmele Urtxulategi Lasa kideak. Egun, Gipuzkoako eta Euskal Herriko banda zaharrena da, eta bere izenak islatzen duen moduan, irmo mantendu da bi mendez Donibaneko eguneroan. Une honetan 25 pertsona ari dira Konstantzian, eta banda bat direnez, instrumentu ezberdinak jotzen dituzten kideak biltzen dira bertan.

Konstantziaren jarduera guztiak Donibanen, herrian, izaten direla baietsi du Urtxulategik. Banda Pasaia Musikalen barruan dago sartuta, eta hori dela eta, urtean lau kontzertu finko egiten

dituztela kontatu du Konstantziako kideak. Emanaldi horiek Eguberrietan, udan, udaberrian eta Santa Zezilia inguruan izaten dira. Horiez gain, Aste Santuan prozesioan jotzen dute, eta presentzia handia dute herriko jaietan. San Joan bezperan *San Joango martxa* jo zuten, eta, orain, santioetara begira jarri dira. Hilaren 27an (astelehena) arrantzaleen danborradarekin aterako dira bandako kideak, 22:30ean. Ondoren, hilaren 31n, San Inazio egunean, goiz bizia izango du bandak. 09:00etan itsas diana egingo dute badian zehar, eta lurreratzen direnean, herriko kaleak girotuko dituzte. 11:00etan Bate-leren desfilean izango dira, eta jarduera hori bukatu ondoren, Camara ondoan dagoen balkoitoan pieza batzuk joko dituzte. Jaien bueltan, ekainaren 20an Pasaiaiko festen aurkezpenean izan ziren Trintxerpen, barruti urdineko bandarekin batera.

Duela bi urtetik, gainera, Itsas Mendik San Tomas egunaren aurreko igandean antolatzen dituen jardueretan hartzen du parte Konstantziak, Pasaia-Lezo Lizeoko ikasleekin batera. Gaztetxoak kantuan aritzen dira, eta Konstantziakoek musikarekin girotzen dute emanaldia.

Duela 200 urte sortua, Konstantzia belaunaldiz belaunaldi irmo mantendu da Donibanen. Ibilbide ikaragarria osatu du bandak herrian, eta, orain, 25 pertsonak ematen diote ahotsa sanjuandarren taldeari. Bandako kideek asteen behin entseatzen dute, gustura ari dira, eta bidea eta herria egiten jarraitu nahi dute. ■





KBL

OARSO ELEKTRIZITATEA S.L.

943 25 91 79

electricidadoarso@gmail.com

kblelektrizitatea.eus



laz Zumaiaarekin neurtu zituzten indarrak sanjuandarrek. Oier Iriarte

Donibane eta Orio, nor baino nor gehiago

MIKEL DEL VAL GARCIA

Santioen programazioaren barruan, jaietan ohiko bihurtu den herrien arteko desafia egingo da hilaren 30ean (Ez Gaude Denok egunean) Santiago plazan, 18:30etik aurrera. Donibaneko presoek aldeko mugimenduak antolatu du desafia, eta aurten, Oriorekin neurtuko dituzte indarrak sanjuandarrek.

Donibanen urteak daramatzate herrien arteko desafia antolatzen.

Iraganean pertsonen arteko erronkak egiten zirela jakinarazi du Jurgi Aldalur Rodriguez antolatzaileak; baina duela 10 urtetik-edo, herrien arteko probak egiten dituzte. Azken hamarkadan San Pedro, Intxaurrondo, Oiartzun, Lezo, Hernani, Astigarraga edota Zumaia pasa dira Donibanetik. Aurten Orio izango da santioetan.

Talde bakoitzak zortzi partaide izango ditu, launa gizon eta emakumez osatutakoak. Desafia hiru ataletan banatuko dutela aurreratu du Aldalurrek, eta parte hartzaileak esparru ez-

berdineko probetan aritu beharko dira: igeriketan, kontrabandista lasterketan, ergometroan, txingetan, lokotxetan, ingudean, traktore gurgilean, eskaladan eta sokatiran.

Desafia egiteak helburu bikoitza duela adierazi du Aldalurrek: preso eta iheslariei elkartasuna adieraztea, haien aldeko egitasmoa baita, eta herrien arteko harremanak sustatzea. Hasiere-hasieratik jarduerak herriarren babesa izan duela zehaztu du antolatzaileak: «Herriarregandik erantzun ona jaso dugu beti, eta goraka doan jardura bat da. Jende asko animatzen da, oso giro ona sortzen da eta parte hartzaileak gustura joaten dira beti». Parte hartzaileak, gainera, ez dira bakarrik egongo, aurten ere Oiartzungo dultzaineroek Santiago plaza eta herriko kaleak girotuko baitituzte desafia bitartean.

Herrien arteko harremanak sendotzen jarraitzeko, oriotarrak afaltzeko egingo den barrikotera gonbidatu dituztela baietsi ditu Aldalurrek. ■



EGITARAU OSOA HEMEN

labureus.oarsoagenda



HITZA

KUADRILLEN SARDINA ERREAK DENENTZAT

HILAREN 27AN. Donibaneko kuadrillek sardina erreak egin, eta nahi dutenei emango dizkiete hilaren 27an, San Pantaleon Egunean. 15:00etan jasoko dituzte arrainak eta ikatza, eta 19:00etan hasiko dira banaketarekin. Herri giro bikaina sortzen da.



HITZA

PALA, JOLASAK, BAZKARIA, ARRANTZA...

HILAREN 29AN. Santioetan asko dira hurrei begirako jarduerak. Horietatik asko hilaren 29an (asteazkena) izango dira: 11:00etan pala txapelketa egingo dute frontoi estalian, 12:00etan tailer eta jolasak Meipin, 13:30ean bazkaria Meipin, 16:30ean arrantza txapelketa Bonantz aldean, ondoren askaria, eta segidan karabina txapelketa (18:30).



HITZA

BATELEREK EZ DUTE HUTSIK EGINGO

HILAREN 31N. Egun esanguratsu asko dituzte Santio Jaiek. Horietako bat azkena da, San Inazio Eguna. Batelerek indarrez hartuko dituzte kaleak goizeko desfilean (11:00) eta ondoren egingo duten estropadan. Haiek arduratuko dira, su-festaren ondoren (22:30), santioak bukatzeko ikurrina jaisteaz, Itsas Mendiko danborradak lagunduta.



ERASO SEXISTARIK ETA
LGTBOFORIK GABEKO JAIK!

FIESTAS SIN AGRESIONES
SEXISTAS NI LGTBOFOS

